

## NOLAKO JATORRIA, HALAKO BIZIMODUA?

Aukera berdinak guztiontzako, hori da ekitatearen funtsa. Errealitatea, ordea, bestelakoa dela badakigu, jatorriak edo sorlekuak berak bizimodu baten nolakoa baldintzatu dezakeelarik. Oinarrizko gabeziak dituen herrialde edo familia batean jaiotako umearen etorkizuna eta bestelako egoera batean jaiotako umearena, ezberdinak izango dira akaso.

Urrutiko eta gertuagoko hainbat egoera aztertu ditzagun:

ELIKADURA OINARRIZKOA DA EDONORENTZAKO...



<http://www.fao.org/hunger/es/>

Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundeak plazaraturiko datuetan erreparatu eta honako galderei erantzun:

Datuen arabera, zein kontinenteetan daude gaizki elikaturiko populazioa %35etik gorakoa duteneko herrialde gehien?


Non daude gaizki elikaturiko pertsona gehiago, Nigerian ala Namibian?

Indian bakarrik, zenbat biztanle daude ondo elikatu ezinda?

DAGOENAREN BANAKETA ERE GARRANTZITSUA DA...


Herrialde bakoitzaren barruan ere desorekak ematen dira, hauek kasu batzuetan nabarmenagoak direlarik. Ikus Gini indizearen arabeko egoera (0= guztizko ekitatea, 100= ekitatetik guztiz aldentuta) eta honako galderei erantzun:

<http://www.indexmundi.com/es/datos/indicadores/SI.POV.GINI/compare#country=xu>



Zeinek dauka Gini indize altuagoa, Ameriketako Estatu Batuak ala Indiak? Zer esan nahi du horrek?

Espainiako kasuari erreparatuz, zein bilakaera islatzen da 2007-2010 urteetan? Zergatik izango da?



Euskal Herrian bizi garen guztion egoera ere ez da berdina, eta zailtasunei aurre egiteko aukerak ere, hainbat ezaugarrien arabera, handiagoak edo txikiagoak izango dira. Taula honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko langabeziaren ehunekoak azaltzen dira:

LANGABEZIA EAE-n (%tan)	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Orokorra	6,2	6,6	11,3	10,7	12,4	15,6	16,6
Estatuko biztanleak	5,5	5,8	10,1	9,5	11,0	13,7	14,9
Atzerritarrak	16,4	16,3	24,9	22,4	26,8	37,0	37,6
Europar Batasuneko biztanleak	12,7	17,7	24,5	17,0	17,2	19,4	32,3
EBtik kanpoko biztanleak	18,9	15,7	25,1	23,5	29,3	41,5	39,0

Iturria: FOESSA fundazioa

**HORRENBESTEZ, GURE HERRIAN KOKATU GAITEZEN. EZAGUTZEN DUZUEN EGOERAZ ABIATUZ, HONAKO AIPAMENEN INGURUAN TALDEKA EZTABAIDATU ETA ONDORIOAK ATERA:**

Arazo ekonomikoak dituen familia batean jaiotako ume batek traba handiagoak izango ditu hezkuntza "on" bat jasotzeko.

Hezkuntza "on" bat jaso ez duen pertsona batek traba handiagoak izango ditu lanpostu "on" bat topatzeko.

Lanpostu "onik" ez duen pertsona batek zailtasun handiagoak izango ditu bere bizimoduaren garapenean: aisialdia, lagunak, familia, etxebizitza...

Zein giza taldean eman da langabezia minimo eta maximoaren arteko alderik handiena? Zeinean gutxiena? Zer adierazten du horrek?

Zure ustetan, bertako biztanleek eta kanpotik etorritakoek aukerak berdinak al dituzte lana eskuratzeko? Eta, orokorrean, lanpostuaren ezaugarrietan ezberdintasunik egongo dela uste duzu? Bidezkoa al da?

Halako segidak ematen direla iruditzen al zaizue? Segida horiek moztu al daitezke? Gure gizarteak baliabide nahiko eskaintzen al ditu segida horiek gerta ez daitezen? Zer proposatzen duzu, jatorria edozein izanda ere, guztien aukerak berdinak izan daitezen?